



## Eskualdeko EA Eren 9 zerrenda baliogabetzea eskatu dute

**INPUGNAZIOAK** ▶ Asteasu, Elduain, Ibarra, Irura, Lizartza, Leaburu, Zizurkil, Tolosa eta Aresoko EAE-ANVko zerrendetan jarri dituzte

**OROTARA** ▶ EA Eren 256 zerrendetatik 122 inpugnatu ditu Espainiako Estatuaren abokatuak eta Fiskaltzak, berriz, 110 ▶ 2

N. URBIZU



Santa Kruz  
jaiak iritsi  
dira gure  
eskualdeko  
bi herritara

**OREXA-ASTEASU** ▶

Atzo hasi ziren festak Orexan; Elizmendi auzoan, berriz, bihar ekingo diete ▶ 4-5

**JONAN FERNANDEZ** ▶  
BAKETIK-EKO KIDEA

«Pentsatu  
behar da giza  
duintasunaren  
aurretik ezer  
ez dagoela» ▶ 7

# hitza



Lea-Artibai eta Mutrikuko HITZaren aldeko ARTE ERAKUSKETA

2007ko maiatzaren 4tik 20ra UHAGON Kulturgunean (Markina-Xemein)

hitza

## GUTUN@K ▶

## Aldaketa klimatikoari aurre egiteko

Oso ondo dago aurreko astera-ko Tolosako Udalak antolatutako aldaketa klimatikoari buruzko astea. Berriz, ziur gara zenbait gauza ez direla aipatuko: kontuan izan behar dugu, oraingo udala, PNV-EAJk osatzen duela eta alderdi hau Eusko Jaurlaritzan egon den urte guztietan ez dela aldaketa kli-

matikoa eteteko asko egin. As-telehenean ere Ibarretxe lehendakariak Bilbon lurraren egunaren inguruan konferentzia bat antolatu zuen, Kenian CO2 irensteko zuhaitzak landatzeko ekitaldia antolatu zuen era berdinean. Berriz, PNV-EAJren Eusko Jaurlaritzako eredu energetikoa guztiz erregai fosiletan oinarritzen da eta honek esan nahi du izugarriko CO2 (beste gasekin batera) ekoizpena. Aldi berean PNV-EAJ CO2 ugari ekoiztuko duten

proiektu berrien atzean dugu, haien artean AHT, zentral termikoak eta ziklo konbinatuak, errepide berriak eta errauskailuak. Hauekin batera ere aireportuen zabalera eta Pasaia-ko kaia berriaren proiektua jarri behar ditugu. Askok esango dute aurrera egiteko gauza hauek guztiak behar direla. Baina egia da aldaketa klimatikoa (eta baita beste motako kutsadurak, mendi eta ingurune suntsiketarak, diru zarrastelkeria eta

abar) benetan kontuan hartu nahi badugu eta horri buruz zerbait egin era horretan aurrera egin beharrezan atzera joan beharko genukeela (bai, agian termiko batzu ixten, koteak erabiltzeko murrizpenak onartu edo bestelakoak). Agian Euskal Hiria-aren kontzeptuaz ahaztu eta Euskal Herri-ko a berreskuratu. Estatuan Kyoto protokoloan onartutako mailetara iritzi beharrezan bi-koiztu ditugu. Hau da neuririk ez delako hartu, eta hau onartu

baino lehen bezalaxe jarraitzen dugulako. Aldaketa klimatikoa aztertzea ondo dago, baina iturriak ikusiz gero egun eta etorkizunean planteatzen dena berrikusi behar da eta egungo eredu eta beste egitasmoak baztertu.

AHT gelditu! Hondarribiko aireportuaren luzapenari ez! Errauskailurik ez! Lemoizen ez nuklearririk ezta konbinatua ere ez! Jaizkibel bizirik!

MARTIN MANTXO (EKOLOGISTAK  
MARTXAN-EKO KIDEA) ▶

## TOLOSA ▶

## Adinezko gizon bat jo dute eta ondoren, dirua ostu diote

## ERREDAKZIOA

Herenegun 14:40ak aldera, Euskal Herria plazan zenbait lagunek adinezko gizon bati eraso zioten aldean zuen dirua osteko. Ertzaintzaren agenteak bertara iristean, harremanetan jarri ziren biktimarekin, eta honek jakinarazi egin zien bi gizonetako eta emakumezko batek ibiltzeko behar duen makila kendu, lurrera bota eta ukabilkadak eman zizkiotela, poltsikoak miatu eta aldean zeraman dirua osteko.

Lapurretaren uestezko egileen deskribapenaren arabera ertzainek haiek bilatzeari ekin eta minutu batzuk geroago, hiru lagun aurkitu zituzten handik gertu. Susmagarriak identifikatu eta atxilotu egin zituzten S.R.C., 24 urteko emakumezkoa, eta J.D.B.M. eta C.S., 31 eta 48 urteko gizonetakoak, eta hirugarren gizonetako bat (P.M.E., 48 urtekoa) gertakari horietan nahasita izatea egotzita.

Atxilotu guztiak polizi aurrerariak dituzte antzeko delituak egiteagatik.

## POLITIKA ▶

## EAEren 9 zerrenda baliogabetzea eskatu dute eskualdean

EAEk aurkezturiko 256 zerrendetatik Espainiako Estatu-ko abokatuak 122 inpugnatu ditu, eta Fiskaltzak, berriz, 110

## ERREDAKZIOA

Espainiako Estatuaren abokatuak EAE-ANVK aurkeztutako 256 zerrendetatik 122 inpugnatu ditu, eta horien artean dira, Asteasu, Elduain, Ibarra, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Tolosa, Zizurkil eta Aresoko udalekoak.

Gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar nagusieta-koak daude inpugnatutako hautagaizten artean, eta, baita Bilbo, Donostia eta Gasteizko udal eta erakundeak ere. Espainiako Estatuaren abokatuak agertu du irizpide bakarra erabili duela inpugnazioak erabakitzeko: zerrendetako kideen %20-30ek 2003az geroztik Batasunarekin harremana izatea. Horrenbestez, Espainiako Auzitegi Gorenak eskuratu ditu Estatuaren abokatuaren in- pugnazioak.

Fiskaltzak, berriz, 110 zerrenden kontra aurkeztu du in- pugnazioa eta horien artean da Tolosakoa. Irizpide juridiko hutsak erabili dituela nabarmendu du Candido Conde-Pumpido fiskal nagusiak, eta Batasunak «erabili, gidatu edo manipulatuko» dituela frogatzeko aitzarna nahikoa dauden kontra soilik egin duela azpi- marratu.

## ASren inpugnazioak

Bestalde, herenegun, berriz, beste 253 zerrendaren kontra du inpugnazioa aurkeztu zuten Fiskaltzaren eta Estatuaren abokatuaren artean, Abertzale Sozialistak izenpean aurkeztu- tako 246 hautagaizten eta 7 independenteren aurka. Estatuaren abokatuak baliogabetze-ko eskatutako Nafarroako sei zerrendak kontzejuetako hautagaiztak dira: Eguesibar-ko Urri kontzejuko hautagaizta bakarra; Basaburuko Udabe Beramendi kontzejurako Erlain hautagaizta; Ezkabarteko Ori- kainen kontzejurako bi hautagai- ztetako bat —Hautagaizta In- dependentea—; Ezkabarteko Arre kontzejurako hiru hauta- gaiztetatik bat —San Roman—; Ezkabarteko Nikirriungo kon- tezejuko Txangola hautagaizta; eta Larrungo Errazkingo kon- tezejuko hautagaizta bakarra — Errazkingo Elkarte—. Amez- ketako (Gipuzkoa) Kimu Berri taldea baliogabetzeko ere es-

katu du. Honen harira, Rafael Larreinak (EA) azaldu zuen atzo «Amezketako plataforma osatzen duten kide guztiek es- plizituki gaitzetsi dutela biolen- tzia». Fiskaltzak «Batasunako jarraipena diren bost kideak osatzen dutelako taldea» in- pugnatu du Kimu Berriak. Lar- reinak atzo adierazitakoaren arabera, «plataformako hauta- gai guztiak independenteak dira eta ez dute militantzirik legez kanpo dagoen taldeekin». Hori- etatik hiru, gainera, EAKoak direla zehaztu zuen. Hala, bost kide horiek legez kanpo dauden alderdiekin er- lazioarrik ez duela azaldu eta gero, helegitea jarriko dutela Auzitegi Gorenean adierazi zuen Larreinak. Halaber, Fis- kaltzak Altxoko Altxolanean plataforma baliorik gabe uzte- ko ere eskatu du.

Auzitegi Goreneko 61eko sala osatzen duten hamasei magistratuak atzo arratsalde- an bildu ziren Fiskaltzak eta Estatu-ko Abokatutzak AS (Abertzale Sozialistak) eta bes- te hautagaizta independentee- tako hautesleen elkarrean aur- ka egindako inpugnazioak az- tertzeko. Hala, Goreneko sala bereziak bi eguneko epea du erabakia hartzeko, baina se- guerarik bihar arte ez du hor- ren berri emango, eta hurrengo as- tea izango du Auzitegi Konsti- tuzionalak, kanpaina hasi bai- to lehen azken erabakiak ema- teko.

## TOLOSA ▶

## Lehen mailan da Tolosa Aralar dagoeneko

## ERREDAKZIOA

Lau jardunaldiren faltan Le- hen Maila Nazionalerako igo- era matematikoa erdietsi du Tolosa Aralar saskibaloi tal- deak. Maila hau izan da tolo- sarren inoizko kategoriarik altuena 1994. urtean lehen aldiz lortu zutenetik. Orain dela urte batzuk oinarri oina- rri-rik hastea erabaki zutenetik, azken bost urteetan hiru- tan mailaz igotzea lortu dute, «inork gutxi aintzat hartu badu ere, batik bat inguruko erakundeei dagokienean».

Taldeari dagokionez, ho- nako hauek izan dira goera lortu dutenak. Antolatzaile lanetan, Kike Konde, Mikel Ibañez eta Iñigo Larrañaga; hegalekoetan, Goar Artetxe, Iñigo Martiarena, Alberto Mindegia; pibotetan, Unai Elustondo, Ion Izagirre, Jose- ba Zubeldia, Kaiet Vidaurre eta Haritz Arana; entrenatzaile gisa, Jimmy Perez; taldeko delegatu, Jose Llorente; zelai- ko delegatu gisa aritu den Juan Mari Lasa, eta *spar- ring* lanetan izan diren Kepa Jau- regi, Arnaitz eta Ivan. «Aipa- men berezia» merezi duena, Iker Otaño, edozer lanetara- ko egon baita prest, «betiere era bikainean eginez». «Nab- armentzeko» klubeko le- hendakari den Koldo Arsuaga- gakinok «lan isila»; «urte- ak daramatza kluba ahalik eta modurik onenean aurre- ra ateratzen. Eta baita, zaleen lana ere animoak ematen, es- kerrik asko denei».

Dena den, lau jardunaldi geratzen dira, lehen postua lortzea dute orain helburu to- losarrekin.

**MUNTZABAL** Altzariak

- 500 m<sup>2</sup> bi solairutan
- Bertako okasiozko altzariak
- Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:

Koltxoiak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...

Tel.: 943 65 17 61

San Inazio 2

TOLOSA

**ELOLA** ALTZARIAK

bede

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpuztutako neurriak.

Tel.: 943 65 29 01

Lizardi poeta, 2

lo egiteko eta atsedean hartzeko onena

TOLOSA

VILLABONA ▶

**Beste garaipen bat Olaederra ping-pong taldearentzat**

Universidad Deusto Artxandakori 4-1 irabazi zion eta galdu gabe jarraitzen du

ERREDAKZIOA

Olaederra ping-pong taldeak beste garaipen bat lortu du liga autonomikoan eta, beraz, galdu gabe jarraitzen du eta lehen postuan sendo. Oraingoan Universidad Deusto Artxandakori taldearen kontra irabazi zuten, hauen etxean, 4-1eko emaitzarekin.

Garaipen horrekin zazpi-garrena lortu dute. Txema Armentia, Mikel Martin eta Ion Caminos jubenila izan ziren Olaederra taldeko jokalaririk. Bi jardunaldi besterik ez dira falta liga amaitzeko eta Olaederrekoentzat bigarren maila nazionalera igotzeko aukerak hazten ari dira. Hain zuzen, mailaz igotzea da Olaederrakoen helburu nagusia denboraldi honetarako.

Asteburu honetan bi norgehiagoka jokatu beharko ditu Villabonako taldeak. Alde batetik, Gasteizko Zuzenak taldearen aurka jokatu beharko du etxetik kanpo. Igandean sailkapenean azkena doan Krafft Atletico Alai taldearen bisita izango du Olaederra kiroldegian.

ADUNA ▶

**Poltsikoko antzerki lehiaketaren 3. kanporaketa**

ERREDAKZIOA

Asvineneak eta beste eragile batzuk antolatzen duten poltsikoko antzerki lehiaketaren hirugarren kanporaketa egingo dute gaur. Asvinenean egingo da, 22:30etik aurrera. Lau emanaldi izango dira. Kontrapunto taldeak *Un perro escondido* lana emanango du; Karmakros taldeak *Caricias* antzezlan; Begoña Hernandezek *Cafe Irlanda*; eta Teatro Local de Renteriak *Circo Puleva*.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

**Mr. Hurricane Band blues taldearen kontzertua Atxulondon**

Joan Pau Cumellas taldekideak dioenez, «oso gustura joaten gara Euskal Herrira emanaldiak ematera»



Mr. Hurricane Band taldeko partaideak. HITZA

IMANOL GARCIA

Musika bizia entzuteko aukera izango dute Zizurkilgo Atxulondon gaur 20:00etatik aurre-

ra. Mr. Hurricane Band taldeak blues kontzertua emango du. Taldeko ahosoinu eta ahotsa den Joan Pau Cumellasek dioenez, «asko gustatzen zaigu

Euskal Herrira joatea. Bestetan ere izan gara, Tolosan adibidez, eta oso gustura aritu gara». Cumellasek gaineratzen duenez, «oroitzapen onak ditu-

gu hor jo ditugun kontzertuetaz». Hain zuzen, gaur Zizurkil-en jo ondoren, bihar beste kontzertu bat emango dute Leioako Blues Jaialdian.

Cumellasez gain, taldeko beste partaideak hauek dira: Pere Foved bateria-jolea, Ramon Vague baxu-jolea eta Andreu Martinez gitarra eta ahotsa. Kontzertu honetarako, ordea, bateria-jolea Roberto Olori italiarra izango da.

**Blues heterogeneoa**

Blues estilo zehatz bat ez dutela egiten dio ahosoinu-joleak. «Blues nahiko heterogeneoa egiten dugu. Taldekideok beste musika mota bat egiten duten taldeetan ere jotzen dugu eta hango eraginak ere biltzen ditugu gurean». Kontzertuetara joaten direnak gustura ateratzen direla dio Cumellasek: «Guk egiten dugun musika entzunleko guztientzako da. Bluesa ezagutzen ez baduzu ere, gustura entzuten den musika da».

Zuzenekoetan oso gustura sentitzen dira Mr. Hurricane Band taldekoak. «Gure asmoa beti izaten da musika jotzea ondo pasatzeko», dio Cumellasek. «Beti esaten dut eszenatoki baten gainean jotzeko jaioa naizela. Gure bizia da zuzenean aritzea». Bigarren diskoko abestiez gain, prestatzen ari diren beste disko baten abestiak ere tartekatuko dituzte eta ez dira abesti ezagunen bertsiotik ere faltako.

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

**Eskeltzu mendiko III. Larre Irekiera egingo dute gaur**

Guztira 47 larre eta esne behi eramango dituzte Eskeltzura sei baserrietatik

ERREDAKZIOA

Eskeltzu mendiko III. Larre Irekiera egingo dute gaur, 17:00etatik aurrera. Ezkeltzua gain Abeltzain Elkartearen kideek herriarrei Ezkeltzura joateko gonbidapena egiten diete. Batzuk plazatik irten eta ganadua kamioietan Ezkeltzuraino eramango dituzte. Besteek Illarratxoeta (Motzane) ingurutik oinez eramango dituzte.

Aurtengoan 47 abelburu izango dira larrean, Zugastizabal, Zaldugoena eta Egialdeko baserrien larre behiak eta izi-

lar, Ugarte eta Berastegiko esne behiak. Bestalde, Udalak larre eraldatzearen bigarren faseari ekin nahi dio aurten. Lanak Udan hasi eta iraila amaierako ereite lanak egitea aurreikusten dute.



lazgo larre irekieraren une bat. HITZA

iragarki laburrak ▶

**LANA Zerbitzaria.** Tolosan taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. 635 74 52 91 / 943 69 43 13.

**Sukaldariak.** Jangeletarako eta eskoletarako sukaldariak behar dira. Interesatuta daudenen deitu ondorengo zenbakira: 943 44 48 66.

**SALGA! Etxebizitza.** 3 logelako etxebizitza eguzkitsua, bista ederrak, atiko gela eta trastelekua. 34.800.000 pzta: 657 77 00 85.

JAIKAK ▶

# Oilarra jaitsita, Ximonen zain

Santakruzak hasteko Orexan elizako dorretik jaitsi zen atzo animalia, eta Asteasuko Elizmendin bihar emango diote ongietorria gizonezko panpinari



Oilarra biziak, elizako dorretik udalberano jaitsi zuten, herriaren begiak gainean zituela. ■ URSUA



Segan aritu zen bikote bakoitzak zorrotzale bana izan zuten lagurtzen. ■ URSUA

30 **Annunziata** **International aldeko saltoa**

**Larku=** **Agurak**

**Bertso jaialdia**

maiatzak 4, **22:00etan**  
**Tolosa**  
Londra Antzokia

### NEREA URIBU

Santakruzak iritsi dira, eskualdean udaberriko lehen festak, hain zuzen. Gurean, Asteasun eta Orexan dira jaiak, eta bakoitzak bere moduan egitarau bereziak prestatu dituzte. Bietan ere, elizako dorretik jaisten den baten bati esker jasaten dira festak. Asteasun Ximon, eta Orexan aurten oilarra.

Oilarraren kukurruak ez ditu Oreako jaiak iragarri, baina bai elizatik udalberano animalien jaitsierak. Han zuzen zain orearrak, suzta-zen ondoren oilarra udalberano noiz helduko zen gora begira. Kaiolan sartuta onk iritsi zen, eta ondoren, baliolan zende-nek txanpaina botila bat iruki zuten.

Ez zuten denbora gehiegi galdtu, ia segidan sega agustua egitera joan baitziren. Herritarrek azaldu bezala, «euria egin duenez, sega agustua ez dugu nahi bezala egingo: belartzia bustita dago, eta ez dugu gurtza egingo, hau da, ez dugu bilduko eta pisatuko bakarrik motu». Orexan oso ohiura handia izan da, lehenago denek zekiten segan, eta gainera onak omen ziren, herriarek gopuratu zuten moduan. Talde batzuk alera ziren segan airtzeko, baina adierazten bi bikote animatu ziren, nor baino nor sendago. Ikusleen artean, berriz, haur, zahar eta gazte izan ziren.

Aurtego segariak hauek izan dira: Atanba Beristin eta Asier Artillaga, eta Arantxa Urbietti alogarria Martin Irujozkin. Hain baitziren sega ia inoiz hartu ez zutenak eta segan urte askotan aritutakoak. «Arantxa Beristin gasetan ibiltzen zen eta oso ondo gainera. Urte askoan ez du prakti-

katu, baina agustua egingo gurela esan genuean, animatu egin zen». Dudarik gabe, maila oso ona erakutsi zuten orearrak, sasoi ederrera diagoela, alegia. Segarietxeko zorrotzaleen laguntza ere izan zuten, bikote bakoitzak bana.

Ondoren, ia herriko bazkia izango zena zegoen prestatuta: oilarra jaitsi orduko hainbat herritarrek pintxo lehiaketarako plater ederrak eraman zituzten. Arratsaldean, berriz, eguraldiaren erabera jokatu zuten toka eta bola tapelketarako: noiznahi ateri zegoen eta bat-balean euri zaparradaren bat botatzen baitzen.

### Hurrengo egunetakoak

Gaurko egunean zehar ez da ezer izango iluntzera arte. 20:00etan sardina jatea izango da, eta 22:00etan Euskal Herriaren zehar ibili diren antzerkiari izango dira kale antzerkia eskaintzen: Trapu zaharra taldea izango da Aterpea saioarekin. Eguna alai bukatzeko Dj Bull irurarra izango da pilotalekuan 23:00etan aurtera.

Bihar, berriz, umentzako jolasak prestatu dituzte 16:00etan. Merienda ere izango da denentzat. 21:00etan ailaria izango da, eta gaurdian, Imuntzo eta Belokirekin musika aldia izango da, eta gero Dj Bull berriz. Ez da horria bukatuko gaua, baratzuri zopa ere izango baita poseutuenentzat. Biltzarren Gari eta Itxaki trinkilariek ere izango dira.

Ez herri kirolak izango dira, eta baita sagardo diastaketa ere. Eizn dira bertsoariak falta kasu honetan, Orea Unai Irujiariak eta Sustrai Kollinak bistariko dute.

### Asteasun Ximon

Asteasuko Elizmendin auzoan berriz ere Ximonen jaitsiera ikusiko dute 16:30etan, txupinazioa



Ximonen jaitsiera laz. Aurtien ere jaitsiko da. ■ URSUA

entzutearekin batera. Hala ere, horren aurretik hasiko dira gauzak egiten, 11:00etan duatolia baitago eta 15:30ean Mus Txapelketa Herrikoa. Umentzatzat aproposa izango da arratsaldea, haur jolasak baitaude, eta 19:00etan Eriz Magoa. Gaur, 20:30ean Herri Afaria izango da Erretore Ebean, eta 23:00etan Kupelak saioa egingo du Gaiuekoekin bukatzeko, zesen suzko izango da. Badute non ondo pasatzea asetsuarek, eta baita kirolak, bai Asteasura, bai Oreara josteko animatzen direnek ere, santsukruzak igarotzeko.

### EGITARAUAK ▶

Asteasuko Elizmendin bihar hasiko dira Santa Cruz jaiak, eta Orexan atzo hazi ziren.

#### OREA

**GAUR**  
20:00. Sardin jatea.  
22:00. Kale antzerki: Aterpea (Trapu Zaharra taldea).  
23:00. Disko festa: Dj Bull.

#### BIHAR

16:00. Ume jolasak, Xiba baldarokin. Ondoren, merienda.  
21:00. Herri afaria.  
24:00. Imuntzo eta Beloki. Ondoren, Dj Bull eta baratzuri zopa. Kalejira Gari eta Itxaki trinkilariekin.

#### ETZI

18:00. Herri kirolak: Oiarzungo Gintza elkarteak.  
20:00. Sagardo diastaketa. Ondoren, Unai Irujiariak eta Sustrai Kollina bertsoariaren saioak.

#### ASTEASU (ELIZMENDI)

**BIHAR**  
11:00. Duatolia: mendiko borinudaluzita eta kroa.  
15:30. Mus Txapelketa herrikoa.  
16:30. Txupinazioa eta Ximonen jaitsiera. Ondoren, haur jolasak.  
19:00. Eriz magoa.  
20:30. Herri afaria Erretore Ebean.  
23:00. Kupelak taldea. Goizaldean, zesen suzkoa.

#### ETZI

11:15. Mica Santa Cruz ermitan. Ondoren, hamaiketako eta Toka Txapelketa. Laja eta bere taldea trinkilariek ondoren.  
18:00. Herri kirolak. Sokamuturra (zezenkoak eta ponetariak). Ondoren, Laja eta bere taldea.  
21:00. Ximonen igopera. Bukatzeko, Laja eta Taldearekin erromena.

### IV. HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶

## Elordi, Alegia eta Zazpi-Isturri eskolak ariko dira

Kadeteen mailan Berastegiko Otaegik bakarrik lortu du garaipena bigarren jardunaldian

#### N. URIBU

Asteburu honetan Hitza Pilota Txapelketa partidetan honako hauen aurka ariko dira txoleak, diebak eta infantiak: Alegian bihar, 18:00etan benjaminen artekoetan Elordioak eta Alegioak izango

dira lehen bi partidetan. Albituren gau 19:00etan diebak bertin, eta infantiak ere, gaur 19:00etan. Jubenilen mailan Berastegin, Zazpi-Isturriak ariko dira eta beste gutxiak kanpotarrak izango dira. Gaur 19:00etan izango da, lehen partidak.

#### Kadeteen emaitzak

Kadeteek asteartean jasotako emaitzak hauek izan dira: eskualdeko hiru ibili ziren, Urbietta I.a (Erretore) Exantzen aurka (18-6) eta Berastegiko Otaegi Iraolaren aurka. Azkenean Iraolak irabazi zion 18-13 be-

rastegiarrari. Aurtera-Saiazko Eliolak 6 tanto egin zituen Santoren aurka. Beste trabazteak Bereziartu, Iratorza eta Madariaga izan ziren. Kadeteen hurrengo neurketak asteartean izango dira beti bezala, Bidegoango pilotalekuan.

Entzun Biker, 3 A-koek ez dute Euskalteien zerbaitzirik etxean

Harria !!

Harrigarria... orain % 50 aurreratzen auzera baitago...

Euskaltei Harrigarria da ez edukitzea!

Datu orain Euskaltei gurekin batuko

300 MILIARTEKO KONTINGENTZAREN %50 OROZ

Datu 1717tik ezb ezin Euskalteien salbetez

euskaltei



## BERROBI ▶

Ekitaldiz  
gainezka  
ekingo diote  
Kultur Asteari

Hilaren 7an, suziri eta buruhandiek emango diote hasiera 17:15ak inguruan



Joan den urteko ekitaldia. HITZA

A. IMAZ

Astelehenean hasiko da Berrobiko XVII. Kultur Astea. Egungo egongo dira ekitaldiak eta antolatzaileek «gustuko eskaintza izatea espero» dutela adierazi dute, «parte-hartzea eskertzen» dutelarik.

Asteko egun guztietan egongo da zer ikusia. Lehen egunean, 17:15ean suziri eta buruhandiek emango diote hasiera Kultur Asteari. Ondoren, halterofilia erakustaldia izango da Urreburu pilotalekuan. Asteartean gaztetxoan pilota partidaz gain, sukaldaritza erakusketa antolatu dute Felix Belaunzaraneekin. Hortik aurrera, ipuin kontalariak, eskolako ikasleen emaldia, Mus Txapelketa eta txakoli dastaketak egongo dira besteak beste.

Larunbat goizeko ekitaldiak salbu, arratsaldean izango dira Berrobiko Kultur Asteko ikuskizunak.

## IBARRA ▶ KULTURA

Izaskunen grabatuko  
dute 'Sua' filma

Bihar 14:00etarako luzatu dute gonbitea EALko partaideek



Izaskunen Txerri apustua ere grabatu zuten Sua filmarako Eneko Arizaren Lagunek. IMANOL GARCIA

ASIER IMAZ

Eneko Arizaren Lagunak Kultur Elkarteak Sua filmeko grabaketa egingo du bihar Ibarako Izaskunen. Inkisizioak atxilotutako herritarren erreketak eta merkatu egun bat grabatuko dituzte ermitaren atzealdean. Horretarako laguntza eskatu dute, izan ere, bertan parte hartzeko jende ugari behar dute EALekoek. «Merkatuan egongo den herria behar dugu grabaketarako. Izaskunen elkarteko gara arratsaldeko 14:00etan. Jantziak guk eramango ditugu, baina abarkak edo jantzi zaharrak dituenak eramaten baditu eskertuko genuke».

Sua filmaren azken zatia ari dira grabatzen EALekoak.

Bihar grabatuko dutizten bi eszenak egin ondoren, «lau edo bost» grabaketa geratuko zaizkiela adierazi dute antolatzaileek.

## Ekainak 2, egun berezia

Akelarrea grabatzeko data iada jarri dute. «Lekua oraindik esan ezin dugun arren, data aspalditik jarria daukagu. Gauzak ondo badoaz, ekainaren 2an izango da azken grabaketaren eguna. Horretaz gain parte hartu duten guztiei, esker-eman nahi dizkiegu egun horretan. Lehenik, akelarrea grabatuko dugu eta ondoren denon artean festa txiki bat» egingo dutela diote Eneko Arizaren Lagunek. Jendearren parte-hartzearen inguruan oso

balorazio baikorra egiten dute, «ziur ez dakigu baina 500 pertsonatik gora mugitu ditu Sua filmak. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan barrena ibili gara gure ezpata eta lantzak eskuan hartuta. Euskalki mota ugari bildu ditugu pelikula honetan eta oso gustura gaude jendearen erantzunarekin. Izaskunen bihar egingo dugun grabaketara, orain artean irten direnak eta batez ere, etorri ez direnak azaltzea nahiko genuke. Azken aukeratariko bat izango baita larunbatekoa».

Deialdia beraz egina dago bihar arratsalderako. Zer egin handirik ez duenak «lotsarik gabe» Izaskunera azaldu besterik ez du 14:00etan, euskal pelikula herriko batetan parte hartzera.

## LIZARTZA ▶

Preso sozialen  
babesa izan du  
Agirrebarrenak

Aitor Agirrebarrena preso politiko lizartzarra Mitard isolamendu zeldatik modulo berezi batera aldatu dutela jakinarazi du bere sendiak. «Zuzendariarekin hitz egin du eta egun gutxira bere ohiko modulora eramango dutela esan omen dio». Bere sendiko kide bati bisita ukatu ziotelako protesta egin ondoren sartu zuten Mitardean. Sendia «pozik» agertu da, izan ere, Mitardetik ateratzeko bere moduloko preso sozialek protestaldia egin dute, «horregatik atera dute isolamendu zeldatik». Agirrebarrena, Normandian aurkitzen den espetxean, euskal preso bakarra da.

## IBARRA ▶

Elkartasunaren  
aerobic-a bihar  
kiroldegian

Bihar 12. Aerobic-eko elkartasun maratoia burutuko dute Ibarako kiroldegian 16:30etik aurrera. Ibaratik Misio Taldeak antolatuko du hamabigarren aldiz eta Gipuzkoako Aerobic maratoi finalarekin bat egingo dute bertara agertzen diren partaideek.

## LEABURU ▶

Etzi, Arrospide  
Urrezko Aizkora  
Txapelketan

Ligaxkako lehen lehia jokatuko du etzi Anjel Arrospidek Urduñan, Peñagarikanoren aurka, C taldearen barnean. Eguerdiko 12:30ean hasiko den norgehiagokan, leaburuarra jotzen dute faborito. Peñagarikanok ordea, irabazi beharra du aurrera jarraitzeko.

hitza

Harpidedunen  
txokoa

GAUR Ibarako Garagardo Festan

afaltzeko zozketatu ditugun 2 afarien  
harpidedun irabazlea honako hau da:

▶ Maria Fernanda Olarra (Amaroz)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

3 karpa  
Jaki tipikoak  
24 garagardo mota  
5 KALIMOTXO ezberdin

marrazkiak  
3, 4, 5 eta 6

JONAN FERNANDEZ ▶ BAKETIK-EKO KIDEA

# «Giza duintasunaren aurretik ez dagoela ezer pentsatu behar da beti»

Atzo amaitu zen Baketik-eko Jonan Fernandezek hiru egunez Leitzan eman duen ikastaroa

NAIARA GARZIA

Jonan Fernandez (Tolosa, 1962) Baketik-eko kide da eta gatazkei etikoki aurre egiten ikasteko ikastaroak ematen ditu bai Arantzazun, baita Euskal Herriko beste hainbat herrietan ere. Leitzan Baketik-eko ikastaroak hiru egunetako iraupena izan du eta atzo amaitu zen.

## **Zein da ikastaro honen helburua?**

Orokorrean ikastaroaren helburua dauzkagun gatazkek etikoki lantzen edo etikoki aurre egiten ikastea da. Eta aldi berean bakeak egin ondoren bizikidetzat berri bat nola presatatu daitekeen jakitea.

## **Ikuspuntu pertsonala du, orduan, ikastaroak?**

Pertsonala eta soziala. Batez ere pertsonala, bakoitzak bere gatazkei era baikor eta konstruktibo batean aurre egiteko zer bitarteko dauzkan aztertzen baitugu. Baina horrek badauka bere eragina gizartean eta bizikidetzan. Neurri batean badauka eragin politiko eta soziala, beraz.

## **Baketik noiz sortu zen eta zer helbururekin?**

2006. urteko urriaren 14an sortu zen, eta helburua ikastaroen helburu berbera da. Gatazkek etikoki lantzen irakastea, eta berradiskidetzea. Noiz bait gure herrian bakea eta normalizazioa etorriko direla pentsatuz, hori lortzen baldin bada behar beharrezkoa izan da bakeak egitea eta honen ondoren sortutako biziki-

detza bat aurrera eramatea. Hori guztia landu eta prestatu egin behar da.

## **Bakea beti posible al da?**

Bakea bere osotasunean hartuta ez da existitzen, ez da existitzen bake perfektu bat, ezta justizia perfektu bat ere, baina asko hurbildu gaitzake.

## **Zerk oztopatzen du bakea?**

Alde batetik indarkeria, eta bestetik, injustizia. Nik uste bi arloetan batera lan egin behar dela eta ez biak baldintzapean jarri. Bakoitzari gure bake ekarpena eta justizia ekarpena egitea tokatzen zaigu.

## **Gorritoak ere bakea oztopa al dezake?**

Horrek berradiskidetzea oztopa dezake. Kontutan hartu behar da berradiskidetzea ez dela berriro lagunak izatea, baizik eta elkar errespetatzea. Hori asko landu behar den gai bat da. Nik uste bakea lortu behar dugula, eta akordioa, baina gure artean errespetuz bizitzen ikastea ere garrantzitsua da.

## **Bakearen gainetik inkontzienteki beharbada jendeak beste gauza batzuk jartzan al ditu?**

Gatazka suntsitzaileek normalean eduki behar genituzkeen oinarriak eta ereduak desordenatzen dituzte, eta desorden nagusia da pentsatzea gure pertsonaren duintasunaren gainetik edo bakearen gainetik gure gatazka helburua dagoela. Eta orduan etika da daukagun bitarteko egokiena nahasmen horretan ordena jartzeko. Giza duintasunaren

aurretik ez dagoela ezer pentsatu behar da beti. Bakea giza duintasuna errespetatzea da.

## **Gaur egun etikak zer leku berrak dituen, bizitza pertsonalean eta gizarte-mailan?**

Nire ustez gure bizitzan etikak ez du toki zentral bat, eta etikaren kontzeptua era instrumental batean erabiltzen da gaur egun, ez ardatz nagusi bat bezala. Nik uste ahalegin handi bat egin behar dugula etikan oinarrituriko ikuspuntua berreskuratzeko, eta joera pertsonal, sozial eta politikoak etikaren bitartez aurrera eramanez ahal izateko.

## **Bakearekin baikorra al zara, ikuspegi pertsonalean eta sozialean?**

Ni baikorra naiz. Nire ustez une honetan eta gure gizartean, hau da, XXI. mendean eta Europan, bakea eta normalizazioa atzeratzen dira. Pixka bat gehiago edo pixka bat gutxiago kostatuko zaigu, baina bukaeran gaude. Nire ustez bukaera ez dago edo batzuen edo besteen esku. Bakea testuinguru historiko, politiko eta sozial baten ondorio da.

## **Bake prozesua nola dago zure ustez?**

Nire ustez *impasse* egoera batean gaude eta hauteskundeak pasa arte horrela jarraituko dugula pentsatzen dut. Bakoitzak bere aldetik aurrerapauso bat ematea beharrezkoa litzateke, zeren horrelako bake prozesuak askotan alde bateko konpromisoen bidez egiten dira, beste konpromisorik eskatu gabe.



N. GARZIA

## Azken eguna Leitzan

Ikastaroak iraun duen hiru egunetan Leitzako 24 lagun bildu dira. Prebentzioa, bitartekaritza eta berradiskidetzea landu dituzte hiru egun haueetan.

Aurreneko egunean prebentzioaren inguruan mintzatu ziren: gatazka suntsitzaileak nola prebenitu behar diren aztertu zuten, eta horretarako etikak duen garrantzia. Bigarren egunean bitartekaritza inguruan aritu ziren, hau da, gatazka aurrean dagoenean gatazka hori pertsonalki nola landu, bakoitzak bere buruarekin eta baita besteekin ere. Horretarako elkarriketa, entzumena eta negoziazioaren garrantzia aztertu zuten. Atzo, berriz, berradiskidetzea jorratu zuten. Jonan Fernandezek azaldu duen bezala, «hemen

bi gai jorratzen ditugu: alde batetik, gatazka batean biktimak baldin badaude edo sufrimendua baldin badago horri aurre nola egin, eta bestetik, berradiskidetze bat nola aurrera eramanez gatazka batean zure aurka daudenekin, eta horrek zer suposatzen duen, zertan laguntzen duen...».

Gai bakoitzarekin hitzaldi bat egin dute eta amaieran solasaldi bat. Honetaz gain, ariketa edo lan pertsonal bat egin dute hiru egun hauetan. Honela, ikastaroan parte hartu duten 24 lagunek gatazka bat idatzi dute eta ondoren ikastaroan ikasi dutena bakoitzak gatazka horri aplikatu dio. «Jende asko bildu gara herri txiki bat izateko eta nire ustez jendea oso pozik gelditu da», dio Fernandezek. ◀



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** IV. Garagardo Festa Ibarra-ko plazan: 18:00etan izango da irekiera; 20:00etan Xantos Agirrezabalaren argazki emanaldia pantaila erraldoian, ondoren Djen saioa eta 22:30ean Potemkin eta Neubat taldeen kontzertua Gaztetxean.

**Orendain.** Korri, Xalito eta Brinko pailazoak 17:30etik aurrera liburutegian izango dira *Show berria* prestatzen saioa egiten.

**Tolosa.** Gipuzkoako Amnesty International-en 30. urteurrena dela eta, bertso jaialdia izango da Leidor aretoan, 22:00etan. Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Amaia Agirre eta Sebastian Lizaso ariko dira. Sarrerak Servikutxan 8 eurotan salgai.

**JAIAK**

**Orexa.** Jaien barruan, sardin jatea eta antzerki emanaldia 20:00etatik aurrera. Ondoren DJ Bullen disko festa.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
 Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

**IRRATIA**

**Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Asteko onena.  
 21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Baratzea ikastolan bertan**

**TOLOSA ▶** Azken hiruhilabete-an burutuko duten *Baserría eta baratzea* proiektuan murgildurik dabilta Laskoraingo Haur Hezkuntzako lau eta bost urteko ikasleak. Horren baitan ikastolako gune bat baratzea bihurtu dute, bertan barazki ugari landatu dituztelarik. Hiru urtekoek ere izan dute azenario hazia ereiteko aukera. «Lusio handiz» ari dira guztiak lanean Laskoraingo arduradunek jakitera eman dutenez. «Ez zaizkie nahi orduko haziko baina, ikasturte bukaeran entsalada ederra jateko moduan izango dira», diote. HITZA



**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**

**hitza**  
 agurren tarte

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

Jaia Laia eta **berria**ren eskutik **Fermin Muguruzak** prestatutako musika bilduma bikaina

**Gaztetxoak eta helduak**

**Elkarrekin dantzatzen**

**'Musika Munduko Jolastokian'**

- EUSKAL HERRIA
- JAMAICA
- EUSKAL HERRIA
- LIVERPOOL
- KUBA
- HEGOAFRIKA
- NEW ORLEANS
- MEXIKO

**Maiatzaren 5etik aurrera larunbatero disko bat kioskoan**

**berria** + 5,30 €

aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



**ZORIONAK**  
 Egun polita pasa zuen ezkontza egunean. Eongogabik/n



**URTE ASKON**  
 Urki Artoia Amundarain. Gaur 2 urte. Muxu handi bat denon partetik.